



## Enpresa Jarduerak Berriak Abiarazteko Laguntzak Ekintzailetzako Tokiko Proiektuen Esparruan

### Diruz lagun daitekeen jarduera:

- Edozein jarduera-adarretan eta arduraldi eskusiboko erregimenean proiektua enpresa edo enpresa abian jartzeko beharrezko den laguntza eta tutoretza
- Kapitulu honen babespean diru-laguntza jaso ahal izango da negozio-idea bat aztertu eta garatzeko,
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntza hauetako pertsona onuradunen tutorizaziorako, selekziorako eta/edo akonpainamendurako Egaz Txorierri Lanbide-ren erakunde laguntzailea dela eta, akonpainamendua eta aholkularitza EGAZ Txorierri eskainiko du.

### Diru-laguntza kopurua:

- EGAZ Txorierri **gehienez ere 12 laguntza emango ditu** garapenerako.
  - **6 laguntza 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako pertsonentzat.**
  - **6 laguntza 30 urte edo gehiago dituztenentzat.**
- **Nolanahi ere, proiektuak aurreikusi behar du emakume ekintzaileen % 40.**
- EGAZ Txorierri 30 egun balioduneko epea edukiko du, ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, laguntzak eskuratzen dituzten pertsona ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jarduketei ekiteko.
- Edonola ere, Egaz Txorierriren webgunean ([www.txorierri.eu](http://www.txorierri.eu)) jakinaraziko da laguntzen behin betiko kopurua eta zenbatekoa, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denean.

### Prestazio ekonomikoa:



- **Sustatzaileei enpresa-idea garatzeko eman beharreko laguntza, 1.500 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko.**
- **Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du, baldin eta eskabidea aurkezteko unean sustatzai-lea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta sustatzailea emakumezkoa bada.**

## Beste laguntza batzuk jasotzea:

Aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk autoenplegua sustatzeko emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin

## Onuradunak:

Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak.

- EAEn erroldatuta egotea eta benetako egoitza bertan izatea.
- Langabe izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
- Deialdi honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako bateko aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak pertsona ekintzaileei laguntza emateko kudeatutako aurreko deialdietako laguntzen onuradun ez izana.



## Onuradunak izateko konpromisoa:

Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute susta-tzaileek:

- Arduraldi eskusiboan aritzea enpresa edo negozioa abian jartzeko jardunean.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita.
- Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

Epe horretan ekintzaileek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen ez badute, diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea galduko dute.

## Laguntzak emateko prozesua :

- Eskabidea egiteko epea amaitzen denean, EGAZ Txorierri aztertu egingo du aurkezturiko dokumentazioa, eta bazter utziko ditu deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
- EGAZ Txorierri atzera botako ditu eskaerak, laguntza-kopurua eta/edo dagokion partidako kreditua amaitzen denean.

## Laguntzak eskatzeko epea eta lekua :

**Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2018ko otsailaren 22ko 13:30era arte aurkez daitezke laguntzen eskaerak eta eskatutako dokumentazioa, hemen:**

EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri, SL)

Txorierri etorbidea 46, 13 A



Sondika

**Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.**

## Aurkeztu behar diren agiriak:

- Eskaera-orria (I. eranskina).
- NANaren fotokopia.
- EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman ez dela egiaztatzen duen agiria (Ogasunean eskatzen da).
- Lan-bizitzaren txosten eguneratua; hemen eskura daiteke: [www.seg.social.es/sede electrónica](http://www.seg.social.es/sede_electronica/) / ciudadanos/ servicios via sms/ vida laboral/ acceso al servicio).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).
- Enpresaren Bideragarritasun Plana

## Diru-laguntza ordaintzeko modua:

EGAZ Txorierri ordainduko ditu laguntzak, honela:

- Lehen ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 50ekoa, laguntza eman ondoren gauzatuko da, 2017eko aurrekontuko ordainketa-kredituaren kontura, bideragarritasun-plana osatu ondoren eta enpresa-proiektua ezartzeko aholkularitza-prozesua hasi ondoren.
- Bigarren ordainketa, gainerako % 50,1ekoa, 2018ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman ondoren. Ordainketa egin aurretik, ekintzaileak erakunde laguntzaileari aurkeztu behar dio Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan emandako altaren kopia eta amaierako memoria, egindako jardueren xehetasunak adierazita. Horretarako hiru hilabeteko epea du, laguntzeko prozesua amaitutako egunetik zenbatzen hasita.